

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bular-belarra

XVI. MENDEAN, Europa ekialdea izupean zutenean, Istanbulen lasai ederrean paseatzen ziren otomanoak, zein baino zein harroago, urrutieneko bitxikeria nork erakutsiko... Etxean ere ezagutarazteko modukoak bazituzten. Durbantearen tolesetan kateatuta, idi-bihotz (*Tulipa sp.*) berexiena eta deigarriena nork azaldu, hor ibiltzen ziren esamesa eta marmarra sortuko zuten bazterretan.

Geurean kapela, txapela edota zapela lorez jantzia ikustea zaila da, okasioren batean ez bada. Ez ordea loreak soinean itsatsita ibiltzea. Nork ez du inoren papar aldeko begiteren batean trabatuta arrosaren (*Rosa sp.*) bat sekula ikusi? Ia erabat galdutako ohitura hau berreskuratu beharko genuke. Ikurrina edo diru-kirol talderen bateko ikurra eramatea adinakoa bada. Gure herriko txerri-hiltzaile famatuenak, Gaztañagako *Demetrio zeri*-k, arotzak arkatza bezala, krabelina (*Dianthus caryophyllus*) belarri gainean eramane ohi zuen, dotore asko. Usain ederrez inguratua ibiliko zen... Ahoan alde batetik bestera zarabilen tabako xehatuarena gainzuritzeko egokia. Demetrio-

rena gaur berritzeko, lan handiena taxuzko usaina duen krabelina topatzea.

Ni berbena limoiusain edo Luisa-belar zalea naiz, *Lippia triphylla*. Zalea ez, amorratua! Usainen sarobean, gustukoena ere bai. Izan ere, bakarra gutxitxo eta bi ditu: bata loretxo ziruñoarena, fina eta sotila. Bestea hostoarena, hostoa marruskatutakoan zidra, limoia eta beste, zitrikoak gogora ekartzen dituen usain bizia eta sendoa du. Bizi luzeko usaina: hostoa lehortuagatik, denboratara ere, eskuan hartu eta krasakatzea nahikoa da usaina berritzeko. Garai batean, lurrinak urrutiko kontuak zirenean, soinekoaren paparreko begitea baino handixeagoko txoko batean egiten zitzaion habia berbena limoiusainari, bularreko erretenean. Dantzan eta zirrietan titiak harrotuz elkar igurtztean, hostoak estutu eta usain gozoa gora. Sudurzulotik barrena gora, garunera. Buruaren zerura. Usain hau gustatzen ez zaion gizaseme edo emakumerik ez dut ezagutzen... Etxearen hegoekialdeko kantoian, txoko goxoenean, ale eder bat bizi da, adiskidea...



JAKOBA ERREKONDO

Metatxorroak

Udaren amaiera da metatxorroen sasoia. Belarrarekin edo udaberriko lehen ebakialdiko belarrarekin ere ikustea tokatu izan badaiteke ere, oraingoa da benetako sasoia. Eguna asko moztu da eta gaueko ihintzak ikusgarriak dira. Honela bibelarra, bibedarra edo arradaila ondu nahi bada gauerako metatxorrotu egin behar. Metatxo horietan bildu eta goizean ihintza lurrindu

denean berriz zabaldu. Ondo ondu arte egunerokoa. Lan ikaragarria, baina ganbara bete belar eta bibelar ikustek asko balio du... Metatxilo, metaska, metatxurru, metatxoe, garai batean denean egiten zenaren adierazgarri gu izen ugaritasuna. Argazkikoak metatxorroak dira. Geurean hala deitzen zaie, bestetxeokoe egindakoak dira.

